

5.1.2. KOMUNITATEA AZTERTZEA

5.1.2.1. Azterketa proiektua

SARRERA

Programa lehenbiziko aldiz udalerrri batean ezarri behar denean egin beharreko azterketaren proiektua aurkeztuko dugu. Ezarrita dagoen udalerritan, ordea, ez da beharrezkoa izango informazio bilketa lan hau berriro egitea eta nahikoa izango da, arreta jarri behar den azpitaldeei eta landu beharreko arloei buruzko lehen erabaki bat hartzea, beti ere, profesionalen eta txostenetako ondorioetan agertutako datuak kontuan hartuz; eta, bide batez, egokia izanez gero, baliabideen gida eguneratuko litzateke.

Egin behar den lanaren prozesua, oro har, honakoa izango da:

- Azterketa proiektuaren zirriborro bat egitea.
- Azterketaren hartzaile izango direnekin eta programa bilduko duen departamentuko profesionalen taldearekin egiaztatzea.
- Azterketa proiektua ixtea.
- Tokian tokiko lana egitea: elkarrizketak adingabeekin eta familiekin beren eskaerak jasotzeko, elkarrizketak baliabide-zerbitzuekin datuak biltzeko eta ondorengo egintzak bideratzeko.
- Behaketaren eta elkarrizketen bidez jasotako datuak lantzea.
- Azterketaren gaineko txostena egitea.

Ondoren, "azterketa proiektua" bukatuta aurkeztuko dugu, eta bertan proiektua osatzen duten elementu bakoitza zehaztu beharko da:

- Azterketaren hartzaileak, azterketako hartzaileen beharrak eta azterketaren xedeak.
- Aztertu behar den herritarren multzoa (azterketaren xede izango diren azpitaldeak zehaztuz) eta azterketaren xede izango diren alderdiak (arazoak, lehentasuna izango duten azpitaldeen beharrak) zehaztuko dira, beti ere, gauzatzea aurreikusi diren proiektuen arabera.
- Adin txiki/gazte/familien laginak hautatzeko erabiliko diren irizpideak eta baliabideak zehaztea, hautaketarik egin beharra izango balitz.
- Erabili behar dituzuen informazio iturriak adieraztea.
- Eginkizunen kronograma bat egitea, epeak eta agente zehatzak adieraziz, aurkezten den taulan oinarrituta.
- Erabili behar dituzuen behaketa eta elkarrizketa teknikak zehaztea (banaka edo taldeka, behaketa egingo duzuen ingurua,...).
- Baliabide materialak zehaztea.
- Giza baliabideak zehaztea.
- Azterketaren eremu geografikoa zehaztea.

.....KO UDALERRIAN ARRISKU EGOERAN BIZI DIREN ADINGABE, GAZTE ETA FAMILIEN BEHARREN ETA BALIABIDE KOMUNITARIOEN EBALUAKETA PROIEKTUA.

1. Azterketa proiektuaren diseinua

Azterketa "proiektua" proiektu baten gisara eratu da, beti ere proiektu ororen elementu propioen multzoa kontutan hartuz, hau da, bederatzi gaien proiektu ereduari jarraiki.

- Azterketaren hartzaileak (nortzuei; esparrua)
- Azterketaren hartzaileen beharrak (zergatik)
- Azterketaren helburuak (zertarako)
- Azterketaren oinarrizko deskribapena (zer)
- Metodologia (nola): aztergaia (aztertzen den populazio esparrua, aztertzeko beharrak/arazoak, laginak,...), informazio iturriak, jarduerak, eginkizunak, teknikak,...
- Jardueren, eginkizunen eta epeen segida (noiz)
- Baliabide materialak (zerekin)
- Giza baliabideak (norekin)
- Esparru geografikoa, azterketa bideratu behar den tokia (non).

Toki horretako lanari ekin aurretik, adingabe, gazte eta familien lehen hautapen bat egin da, hau da, programaren zati izanik arreta jasoko duten horien lehen hautapen bat.

Hala, bada, alderdi horiek kontutan izanik kale-hezitzaileok, departamentuko buruarekin batera, azterketaren hartzaileak zeintzuk izango diren definitu ditugu eta azterketa proiektuaren lehen zirriborro bat egin.

Zirriborro hau azterketaren xede izango direnekin aztertu dugu.

Behin iritzien kontrastaketa egin ondoren, agiriari bildu zaizkio jaso diren ekarpenak eta Departamentuko taldeari aurkeztu, beronen ekarpenak ere bilduz azterketa proiektua itxi aurretik.

Azterketa proiektua diseinatzen zen garai berean, tokian tokiko lana egiteko erabili behar diren tresnak diseinatu dira (behaketa erregistroak edota adingabe eta familiekiko eta zerbitzu-baliabideekiko elkarriketa gidoiak eta egunkariak).

2. Azterketa proiektua

2.1. Azterketaren hartzaileak (populazio-esparrua)

Azterketak interesa du, honako hauentzat:

Gizarte ongizate eta kultura udal departamentuentzat.
 Arlo horietako zinegotzientzat.
 Herri mailako bestelako zerbitzu sistementzat (eskolak, osasun etxeak).
 Beren jarduera adingabeei eta familiei zuzentzen dizkieten bestelako baliabideentzat, batik bat arrisku egoeran dauden taldeekin edo/eta populazioa oro har hartzen duten taldeentzat.

2.2. Azterketaren hartzaileen beharrak

Gizarte Ongizateko Departamentua

Azterketa honek udal gizarte zerbitzuen (edo kulturaren arlokoak) multzo osoko esku hartzea bideratzeko aukera eman diezaioke gizarte ongizateko departamentuari (edo kulturakoari), bai eta programaren helburua zehazteko edo eguneratzeko, beharren eta baliabideen egokitzapen handiago bat errazteko, hobekuntzak antolakuntzan sartzeko, beste programetan eta populazio sektoreei zuzentzen zaizkienetan, azterketaren metodologia bera biltzeko (estrategia analisia) eta plangintzako bestelako tresnak eskuratzeko, kale-hezitzaileak udal gizarte zerbitzu edo kulturaletan funtzionalki biltzea indartzeko, programa ebaluatzen aukera, eta abar.

Kultura / Gazteria Departamentua.

Azterketa honek arrisku egoeran bizi diren adingabe eta gazteen aldeko diskriminazio positiboko jarduerak zuzentzeko aukera eman dezake, baina bai eta gizarte bolondresen eta asoziazionismoaren sustapen jarduerak gizarte zerbitzuen departamentuarekin lankidetzan bideratzeko ekintzak definitzeko eta aisialdiko taldeen, jardueren eta bestelako ekintzen udal finantzaketa koordinatzeko edo adingabeei eta gazteei herri mailan zuzentzen zaizkien ekintzak departamentuarterko ikuspegi orokor baten bidez (Gazte Plana gauzatzea, ...) gauzatzeko aukera.

Kultura eta Gizarte Ongizate Departamentuetako Zinegotziak¹

Azterketa honek arlo desberdinetako politikak zuzentzeko aukera eman diezaieke zinegotziei, beti ere arrisku egoeran dauden adingabe eta familien ikuspegitik, baina bai eta lankidetzan jarduerak gauzatzeko ere.

Herri mailako bestelako zerbitzu sistemak eta komunitateko bestelako baliabideak²

Azterketak egintza koordinatua bideratzeko aukera eman dezake, adingabeek eta beren familiak bizi dituzten arrisku egoerak ezagutzen baitira, eta bide batez, baliabideak arrisku egoeran bizi diren adingabe eta familien ezaugarrietara hobeto egokitzeko aukera, sistema eta baliabide desberdinetan diskriminazio positiborako neurriak ezartzeko, lankidetzan proiektuak bideratzeko (hezkuntza, osasuna, gurasoen eskolak,...) eta abar.

¹ Egokia irizten denean interesgarria izan daiteke alderdi mailako elkarriketak egitea (beti ere bi arloetako erantzukizuna alderdi bakar batek hartu badu bere gain).

² Elkarriketak hezkuntza sistemarekin (ikastetxetako zuzendariak, anbulatorioekin (zuzendaritza), buru-osasuneko zentroekin (psikiatra) eta komunitateko bestelako baliabideekin egin daitezke, hau da, gizarte ongizateko batzordearen bidez edo erakundeekin egindako bilera orokor baten bidez edo elkarte jakin batzuekin izandako elkarriketen (elkarkez elkarkez) bidez honezkero nolabaiteko lankidetzan dagoen taldeekin, beti ere populazioko azpitalde jakin batzuen egoeraren azterketa egiteko xedez.

2.3. Azterketaren helburuak

Helburu orokorra:

Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartze eta kudeaketarako udal programa bideratzeko laguntza ematea datozen lau urteetan.

Helburu zehatzak

Helburu zehatzak bat datoz hartzaileen beharrekin.

Gizarte Ongizate Departamentuarenak

Udal Gizarte Zerbitzuen esku hartze orokorra bideratzea populazioko sektore honen baitan.

Populazioko azpitalde jakinei zuzendutako proiektu zehatzak bideratzea.

Beharren eta baliabideen arteko egokiera hobea erraztea.

Hobekuntzak sartzeko antolakuntzan, beste programetara eta populazioko beste sektoreetara zabaltzeko aukera irabaziz.

Azterketaren metodologia bera (estrategia analisia) eta plangintzako bestelako tresnak zerbitzura biltzea.

Kale-hezitzaileen integrazio funtzionala udal gizarte zerbitzuetan indartzea.

Programa ebaluatzea.

Eta abar

Kultura Departamentuarenak

Arrisku egoeran bizi diren adingabe eta gazteen eta beren familien aldeko diskriminazio positiboko ekintzak bideratzea.

Gizarte boluntarioen eta asoziazionismoaren sustapen ekintzak gizarte zerbitzuetako departamentuarekin lankidetzan definitzea. Aisialdiko talde eta jardueren udal finantzaketa koordinatzea.

Adingabeei eta gazteei udal mailan zuzentzen zaizkien jarduerak bideratzea, ikuspegi orokor eta departamentuarterko batetik (Gazte Planaren gauzatzea,...).

Kultura eta gizarte ongizate arloetako zinegotzienak

Lan arlo desberdinetako politikak bideratzea, arrisku egoeran diren adingabe, gazte eta familien ikuspegitik.

Herri mailako bestelako zerbitzu sistemak eta komunitateko bestelako baliabideak

Adingabeek, gazteek eta beren familiek bizi dituzten arrisku egoeren ezagutzatik, egingiza koordinatua bideratzea.

Proiektuak lankidetzan bideratzea (osasunerako heziketa, gurasoen eskolak, ...).

Baliabideak arrisku egoera diren adingabe, gazte eta familien ezaugarrietara egokitze beharra mahaigaineratzea.

Diskriminazio positiboko neurriak ezartzea sistema eta baliabide desberdinetan.
Eta abar.

2.4. Azterketaren oinarriko deskribapena.

Azterketaren helburu orokorra gizarte eta hezkuntza arloko Udalaren esku hartze programaren gauzatzea bideratzea da, datozen ondorengo lau urtetan.

Beraz, ekintzara zuzendutako azterketa bat da, baina aurrez garatu den ekintzan oinarritzen dena, ekintza-hausnarketa-ekintza eskema eredu baten barne.

Horretarako, honakoa lortu nahi da:

Azterketaren lehen fasea

a) Bere jardueraren eraginpeko azpitaldeen inguruan Departamentuak ezarritako lehentasunak eta ondorengo lau urteetan jorratu behar diren alderdiak kontrastatzea.

Azterketaren bigarren fasea

b) Arreta jartzeko lehentasuna eman zaien azpitalde haietako hartzaileen beharrak ebaluatzea..

c) Ardura jasotzeko lehentasuna izango duten azpitalde haiei zuzentzen zaizkien baliabide desberdinen egokiera (eta ez udalarenak bakarrik) ebaluatzea.

Beraz, azterketaren bigarren fase hau ez zaio, udalerrian arrisku egoeran dagoen haur eta gazte populazio osoari zuzentzen, ez eta, gizarte hezkuntzako esku hartze programa zuzen dakioken haur eta gazte populazioari, bere zabaltasunean.

2.5. Metodologia

Ez da ikerketa bat zentzu zorrotzean, esku hartzera zuzendurik dagoen izaera aplikatuko azterketa bat baizik.

Eta azterketak bere helburuak beteko ditu, programara biltzen den departamentuaren jarduera populazioko sektore honetan, adostasun batetara iritsi ondoren egiteko aukera ematen duen neurriaren arabera. Bestalde, azterketa egiteko baldintzei dagokienez, toki bakoitzeko errealitateak aukera ematen duen zorrotasun metodologikorik handiena bermatu nahi da.

Azterketan, batez ere, metodologia koalitatiboak erabiliko dira eta, oinarrian, izaera koalitatiboa baino ez du izango, nahiz eta adierazleen sistema erabiltzean, azterketaren xede den populazio horrek bizi dituen arrisku egoerei buruzko deskribapen koantitatibo bat egitea ahalbidetuko duen.

Alabaina, eta ikerketa koalitatiboa egiten denean jasotzen diren pertsona horiek, gizarte talde jakin bateko klase baten erakusgarri izan badaitezke ere, azterketaren emaitzak ezingo dira populazio osora zabaldu, probabilitatearen zentzuan.

Azterketak, honakoa baino ez du lortu nahi:

Udalerrian arrisku egoeran bizi diren adingabeen, gazteen eta familien ezaugarriak biltzea eta populazioko sektore honi zuzentzen zaizkion baliabideak zeintzuk diren jakitea (lehen fasea).

Eta, aldeztu aurretik lehentasuna eman zaien hartzaile-azpitaldeak deskribatzea eta balioztatzea ahalik eta modurik objektiboenean, hau da:

Beren ezaugarri orokorrak (adina, sexua, udalerriko zona, ...)
Adingabeek, gazteek, familiak bizi dituzten arrisku egoera batzuk jakitea.
Dauzkaten beharrak sumatzea (eskaerak, aukerak, arauzko beharrak).

Eta ez azpitalde bakoitzeko herritar guztientzat, programa bere baitan jasotzen duen departamentuak dauzkan eta hautatutako baliabideen edo ingurunezko behaketaren bidez jasotako datuen arabera, eragina izan dezakeen hartzaileentzat, baizik.

Hartzaileek emandako erantzunak deskribatzea eta balioztatzea, lehentasuna eman zaien baliabideak, zehatzak edo adingabe, gazte eta familien populazio osoari zuzendutako baliabideak beharretara zenbateraino egokitzen diren aztertuz.

2.5.1. Aztertu beharreko populazioa

Beraz, aztertu beharreko populazio sektorea izango da:

Lehen fasea

Programa bere baitan hartu duen departamentuan eta tokiko baliabideetan egon daitekeen informaziotik abiatuz eragina izan eta arrisku egoeran bizi diren adingabe, gazte eta familiak, baina bai eta ingurunearen behaketaren ondorioz jaso diren datuak kontuan hartuz agertzen den populazio sektorea.
Populazioko sektore honi zuzendutako tokiko baliabide propioak.

Bigarren fasea

Haren ondorioz lehentasuna izango dute –lehen fasea amaitu ondoren adierazi zeintzuk diren- “arrisku egoeran” bizi diren adingabe, gazte eta familiak.
Udaleko eta bestelako esparruetako baliabideak, arrisku egoeran bizi diren adingabe edo gazte eta familiei edo, oro har, adingabe, gazte eta familiei zuzendutako baliabideak, lehentasuna duten azpitalde eta beharrei erantzuten dietenak –baliabideak adierazi azpitaldeka/beharren arabera sailkatuz-.

Beraz, mugatu egiten dira hartzaileak (azpitalde jakin batzuk) eta azpitalde hauekin egin beharreko lanaren helburuak³.

³ Adibide gisa, lehentasuna 15-17 urte bitarteko gazteen aisialdiko edo kultura baliabideetako integrazioko helburuei eman bazaie, sumatutako arrisku egoeren eta orduko baliabideen hutsunearen arabera, azterketaren muina izango da, honakoa:

Datozen ondorengo lau urtetan lehentasuna emango zaien azpitaldeen kopurua, errealista da, azpitalde bakoitzarekin lortu nahi diren helburuak, azpitalde bakoitza osatzen duen pertsona kopuruak, baliabide propioak eta bestelakoak, ... kontuan hartuz.

Aztertu beharreko alderdiak

Eragina izateko aukera ematen duen populazio multzoaren eta azpitalde bakoitzaren ezaugarriak, inguruneke heziketa programako adierazle sistemaren arabera finkatuko dira (ezaugarri nagusietako adierazleak, eragin adierazleak eta arazoarekin lotutakoak).

Azterketaren garai honetan ez da hipotesirik (arazoan eragina duten faktoreak) egingo, ez gizarte eta hezkuntzako esku hartze programak bere gain hartu behar, duen arazorik zabalduenaren gainean (gizarteratzea), ez eta, lehentasuna duten arazo edo bestelako alderdi jakinen gainean ere.

Hipotesiaren hurbilpen hau aurrerago egingo da, esku hartzeari ekin aurreko hausnarketan oinarrituz. Une honetan, adingabeen, gazteen, familien eta aztertutako baliabideen benetako egoera, adierazle kopuru nahiko baten arabera egin nahi da, bakar bakarrik.

Hala, deskribapena, hezitzaileek eta programa bere baitan biltzen duen departamentuak dituzten eta behaketak eta baliabideek eta hartzaileekin izandako elkarriketetatik jasotako datuen arabera egingo da.

Azkenik, eta sisteman biltzen diren adierazleek eragina izan nahi den arazoaren alderdiak ezkututzen ez dituen neurrian, azpitalde bakoitzak aztertutako arazoaren eta alderdi bakoitzaren inguruan dituen ezaugarri zehatzak deskriba daitezke

2.5.2. Laginak (bigarren fasea)

Adierazi dugu honezkero, lortzen diren emaitzak ezingo direla, udalerrian arrisku egoeran bizi diren adingabe, gazte eta familien populazio osora zabaldu, probabilitate terminoetan.

Nolanahi ere, lortutako datuen nolabaiteko adierazgarritasuna bermatzeko neurri batzuk hartuko dira⁴ .:

- Adin multzo horretako adingabeak.
- Gerora gauzatuko den proiektuaren markoan lankidetzarik izan daitekeela irizten diren kultura eta aisialdiko baliabideak.

Adingabeei dagokienez, kontuan hartuko da:

- Aldez aurreko harremanetan eta gerora ere esku hartzearekin jarraitzea espero den adingabeak.
- Behaketaren edo baliabideko elkarriketen bidez suma daitezkeen bestelako haiek.

⁴ Lehen azaldutako adibidearekin jarraituz,

- 15-17 urte bitartekoen behaketa egingo da beren ingurunean, asteko egunak txandakatuz, eguneko orduak, eguraldia,

Behaketa egoera desberdinen ausazko laginak jasoko dira, asteko egun eta ordu, egoera, ... desberdinen presentzia nahikoa bermatuz.

Arrisku egoeran bizi eta sumatu diren adingabe, gazte eta familia multzoak –azpitalde bakoitzeko- elkarriketatu ezingo balira, ahal bada, intentzio laginketa bat jasoko da, ez aukera laginketarik, beti ere, martxan jarri nahi den proiektu bakoitzean adierazgarriak izan daitezkeen aldagaien arabera.

Era berean, baliabideen intentzio laginketa bat ere jaso ahal izango da, ez aukera laginketarik, eta beti ere, martxan jarri nahi den proiektu bakoitzean adierazgarriak izan daitezkeen aldagaien arabera.

Oro har, hala adingabe/gazte/familien nola baliabideen hautaketa egiteko, guztiz garrantzitsua eta oinarritzkoa da, baliabideen irizpide (adingabeen eta gazteen kasuan) eta adingabeen edo gazteen integrazioan irizpide (baliabideen kasuan) zehatzak izatea.

Hau da, komenigarria izango litzateke aurrera eraman nahiko litzatekeen proiektuaren bidez estali nahi den beharrarekin lotutako baliabideetan, esperientzia luketen adingabe eta gazteak –positiboa zein negatiboa- eta adingabe/gazte esperientzia gabeak hautatzea.

Eta, era berean, komenigarria izango litzateke, arrisku egoeran dauden adingabeen edo gazteen gizarteratzean esperientzia –positiboa zein negatiboa- duten baliabideak eta esperientziarik gabekoak hautatzea, proiektuaren markoan lankidetzarik izatea ahalbidetuko luketenak, ordea.

“Probabilitatean oinarritzen ez den lagin bat izango da, oro har, zoriaren legeak errespetatu ez eta kanpoko baldintzak, neurri batean kontrolatu edo erabaki duen lagina. Besteak beste honakoak izan daitezke:

Bere iritzia eman behar duten elementuak ikerlariak bere interesaren arabera hautatzea; esate baterako, elementu errazenak edo eskura dituenak aukeratzea, denbora, dirua, eta abar aurrezteko, beren borondatez edo halabeharrean agertzen direnak, eta abar. Ikertu behar den arazoan elementurik adierazgarrienak edo elementu horien ezagupen handiago batean oinarriturik ikerlarik egin dezakeen hautapena, populazio osoaren elementu egokien eta adierazgarrientzat berak berez jotzen dituelako. Kuotaren araberrako hautapena, hau da, populazioaren elementu adierazgarrienen kopuru finko bat hautatzea edo, populazioko gizarte maila jakinetako edo alde desberdinetako elementuak hautatzea.

Beraz, laginketa ez-probabilistiko orori, jatorriko populazioaren gaineko ordezkartza falta zaio. Honek, ordea, ez du esan nahi bere emaitzak baliagarriak ez direnik, ez eta

- Elkarriketak egingo lirateke adingabe/familia talde batekin (elkarriketak banaka edo eztabaida talde batekin egin daitezke, saio desberdinetan), beti ere, adingabe talde mota desberdinekin egiten dela bermatuz, aisialdiko edo kultur jardueretako integrazio mailaren, aisialdia betetzeko moduaren, inguruaren beraren edo adierazgarriak izan daitezkeen bestelako aldagaien arabera.
- Elkarriketak izango lirateke baliabide kopuru mugatu batekin (elkarriketak banaka edo eztabaida talde batekin egin daitezke, saio desberdinetan), beti ere, baliabide mota desberdinak agertzen direla bermatuz, adin talde horretan arrisku egoeran bizi diren adingabeak biltzen dituztenaren arabera, integraztearen aldeko jarreraren, gauzatzen diren tokiaren edo adierazgarriak izan daitezkeen bestelako aldagaien arabera.

fidagarriak ere, baizik eta datu horiekin ezin dela zehaztu, populazioaren parametroak zenbateraino hurbiltzen edo urruntzen diren laginketan kalkulaturako estatistiketatik. Aitzitik, laginketa probabilitateko hipotesiak egiaztatze edo populazioaren benetako parametroak bere baitan jasoko dituen mugak aurkitzeko aukera emango dute". (Félix Calvo Gómez, Estadística aplicada, Deusto argitaletxea, Bilbo, 1989).

2.5.3. Informazio iturriak

Azterketan erabiltzeko informazio iturriak dira honakoak:

a) Populazioaren ezaugarri orokorrak lortzeko (ezaugarri orokorrak lortzeko adierazleak: adina, sexua, udalerriko zona,...)

Udal gizarte zerbitzuen eta hezitzaileen taldearen txostenak eta espedienteak.
Komunitateko baliabideen gaineko informazioa (tokian tokiko lana egiten den garaian izandako elkarrizketak).

b) Adingabeek, gazteek eta beren familiek bizi dituzten arrisku egoeren deskribapenerako (eragin adierazleak eta arazoarekin lotuta daudenak)

Txostenak, espedienteak eta hezkuntza proiektuak, inguru irekiaren behaketan, hezkuntza harremanetan, elkarrizketetan,... oinarrituz.

Tokian tokiko lana egiten den garaian inguru irekian behatutako erregistroak.

Adingabeek edo gazteek eta beren familiek ahoz emandako txostenak (tokiko lana egiten den bitartean izandako elkarrizketak).

Programako adituen iritziek.

Komunitateko baliabideetako adituen eta bolondresen iritzia –herri mailako bestelako arreta sistemak, erakunde pribatuak, ...- (tokiko lana egiten den bitartean izandako elkarrizketak).

c) Beharrak zehazteko.

Adingabeen eta familien (elkarrizketetan egindako eskaerak) ahozko txostenak (elkarrizketetan oinarrituz).

Komunitateko baliabideetako adituen eta bolondresen iritzia (elkarrizketak)

d) Baliabideen deskribapenerako

Baliabideen adituen edo bolondresen eta hartzaileen iritzia (tokiko lana egiten den bitartean izandako elkarrizketak).

e) Bestelako informazio iturriak

Programaren helburuarekin lotuta, administrazioak duen legedia eta dituen planak.

Ezaugarri eta testuinguru beretsuak dituzten populazio sektoreei zuzendutako antzeko programak, izaera aitzindaria eta/edo emaitza onak izaten ari direnak.

Eta abar

2.5.4. Teknikak

Behin azterketa proiektua diseinatu ondoren, tokian tokiko lana egingo da.

Tokiko lanaren eginkizun propioak izango dira, beti, honakoak:

Adingabeen edo gazteen, laguntaldean behaketa inguru irekian.
Elkarriketak adingabe edo gazteekin, familiekin eta baliabideekin.
Dokumentazioa biltzea (antzeko proiektuak, legedia,...).

Beraz, erabili behar diren teknikak izaera koalatiboa izango du eta izango dira behaketa inguru irekian (kalea, lokalak,...) eta elkarriketak adingabeekin/gazteekin/familiekin eta baliabideekin.

Lehen fasean baliabideekin egin beharreko elkarriketa, ondoren zehazten diren alderdietara mugatuko da:

Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiak zehaztera (departamentuak egindako zerrenda orokorra osatzea).

Ezaugarri orokorrak eta deskribapena, eragin eta arazoarekin lotutako adierazleetan oinarrituz (baliabideak bere gain hartuko dituen alderdien gainean, departamentuak jarritako ezaugarriak osatzea).

Baliabidearen oinarritzko deskribapena (fitxa teknikoa).

Lehen elkarriketa honen ondorioz, adingabeen/familien zerrenda zabaldu eta departamentuak kolektibo horren gainean jarritako ezaugarri nagusiak osatu egingo dira. Era berean, arrisku egoera bizi diren adingabe, gazte eta familie zehazki zein gainontzekoei zuzendutako udalerriko baliabideen gida osatuko da.

Baliabideekin egingo den bigarren elkarriketa, bigarren fasean jada, ondorengo alderdietara mugatuko da:

- Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiak zehaztera (departamentuak eta hezitzaileek, xede den azpitaldearen inguruan landutako zerrenda osatzea).
- Ezaugarri orokorrak eta deskribapena, eragin eta arazoarekin lotutako adierazleetan oinarrituz (baliabideak bere gain hartu dituen alderdien gainean, departamentuak jarritako ezaugarriak osatzea).
- Zerbitzuen erabilerari buruzko azterketa (baliabideak eskaintzen dituen zerbitzuak, baliabidea eta bestelako zerbitzuak erabiltzen dituzten adingabeen/gazteen kopurua, baliabidearen eragin eremua, onartua izateko betebeharrak formalak, baliabidea adingabe/gazteen ezaugarrietara zenbateraino egokitzen den maila –adierazle sistemaren arabera-, ...).
- Baliabidearen ikuspegitik adingabeek, gazteek eta familie dituzten beharrak (azpitaldeen eta departamentuak lehentasuna eman dien alderdien arteko kontrastaketa).
- Baliabideak hezitzaileek eta departamentuak berak egin behar duen lanaren gainean duen ikuspegia, jaso beharkeko lituzkeen zerbitzuei eta landu beharreko lankidetzari buruz duena.

Lehen bi alderdiak jasoko dira bakar bakarrik, lehen elkarrizketan jasotako datuen aldean aldaketarik balego.

Adingabeekin, gazteekin eta familiekin egiten diren elkarrizketak beren eskaerak sumatzea eta proiektu bakoitzean aurreikusitako alderdien inguruan dituzten itxaropen iturrietan, baliabideen gaineko ezagupen eta pertzeptzioan, ... zentratuko dira. Elkarrizketak adingabeekin, gazteekin eta familiekin azterketaren bigarren fasean bakarrik egingo dira.

Elkarrizketa banaka zein taldeka egin daiteke, bai adingabeekin, gazteekin eta familiekin eta bai baliabideekin. Taldeko elkarrizketak, eztabaida talde baten izaera ere izan dezake (bizpahiru saio).

Elkarrizketa erdi-moldatua izango da; hau da, aztertuko diren gaiak ez dira itxiak izango eta elkarrizketatzaileak pixkanaka, elkarrizketaren arian planteatzen joango da. Nolanahi ere, oraintsu adierazitako gai guztiei buruz hitz egin beharko da. Elkarrizketa edo eztabaida taldetako saioak grabatu eta paperean idatzaldutako dira.

Behaketa teknikei dagokienez, hiru dira teknika honen bidez lortuko diren helburuak:

- Udalerrri osoaren mailan zonakako laguntaldeen "mapa" lortzea (lehen fasea).
- Aztertzen den hartzaileen azpitalde zehatzaren portaera orokorraren ezaugarriak inguru irekian biltzea.
- Azpi talde jakin horren inguruan heldu nahi diren alderdiei edo arazoei buruzko egoeraren deskribapena egitea (esaterako, denbora librearen erabilera, drogamenpekotasunaren prebentzioa, ...), beti ere, inguru irekian atzeman daitezkeen neurrian.

Laguntaldeen mapak, talde bakoitzaren deskribapena eta, programaren adierazleen sisteman oinarriturik, inguru irekian duten portaerako alderdi adierazgarrienak jasoko ditu eta azterketaren lehen fasean zehar inguru irekian egingo den behaketa sistematikoaren ondorioa izango da. Informazioa jasotzeko behaketa erregistro bat erabiliko da.

Azpitaldeak inguru irekian duen portaera orokorraren ezaugarriak jasotzeko begira, oinarri gisa, behaketaren bidez eta beste hainbat alderdi jasoz lortuko den adierazle sistema batean oinarrituko gara, hala nola, ibiltzen diren tokiak eta zonak, egunak eta orduak, eguneko zein garaitan, egiten dituzten ekintzak, taldearen barneko zein beste taldeekiko harremanak, ...

Portaeraren gaineko alderdi hauek ezagunagoak dira eta honezkero sistematizatuta daude eta adierazleak finkatuta, eta horrenbestez behaketak, kasu honetan, izaera deskribatzaile baino izaera sistematikoagoa du.

Informazioa biltzeko, beraz, behaketa erregistro bat erabiliko dugu. Aztertutako azpitaldearen ezaugarriak lehen fasean jaso badira, ez da beharrezkoa izango behaketa lan hau berriro bigarren fasean egitea.

Heldu nahi zaien arazoen edo alderdien egoera deskribatzeko begira, behaketaren izaera (deskribatzailea, sistematikoa) eta erabili behar den erregistro sistema (egunerokoa, behaketaren erregistro sistematikoa,...) aztertutako arazoaren edo alderdiaren gaineko ezagupen mailaren arabera izango da.

Arazoa edo dagokion alderdia ez bada gehiegi ezagutzen, behaketa deskribatzaile bat egingo dugu eta egunkari bat erabiliko dugu informazioa jasotzeko, mailak ezarriz, gerora, azpitalde jakin horretan lehentasuna eman zaion arazoaren lehen hurbilpen bat egiteko aukera emango diguna, alegia: nola sortzen den, inguru irekian behatutako zein faktorek eragiten duten arazoan, ...

Kasu honetan, azpitalde honen behaketa berezi bat egin beharko da bigarren fasean.

Nolanahi ere, bi kasu hauetan behaketak izaera parte hartzailea izango du neurri batean –behatutako azpitaldearekin dagoen alde aurreko harremanaren arabera-, nahiz eta azterketaren ezaugarriak kontutan hartuz ez den denbora luzean luzatuko.

2.6. Jardueren / eginkizunen segida eta epeak

2.6.1. Lehen fasea

Behin azterketa proiektua egin ondoren, adingabeen, gazteen eta familien lehen zerrenda bat egingo da, programa osatzen duen departamentuak dituen datuak bakarrik kontutan hartuz.

Zerrenda egin ondoren, adingabe, gazte eta familien ezaugarriak jasotzen dira proposatutako adierazle sistemari jarraituz (ezaugarri orokorretarako adierazleak, arazoarekin edo arazoekin lotutako adierazleak eta eraginaren adierazleak).

Adingabeei, gazteei eta familiei, oro har edo zehazki, arrisku egoeran bizi diren adingabe, gazte eta familiei zuzentzen zaizkien tokiko baliabideen zerrenda bat ere egingo da.

Behin bi zerrenda hauek osatu ondoren, lehen elkarriketa txanda bat irekiko da baliabideekin eta, aldi berean, inguru irekiko behaketa orokor eta sistematikoari ekingo zaio.

Elkarriketa txanda egin ondoren, baliabideen gida osatuko da eta hezitzaileen eta programa bere baitan biltzen duen departamentuko adituen artean izandako bileran, erabakitako programaren mugaketa eta/edo eguneraketaren behin betiko erabakia hartuko da (arreta jarri behar den populazioko azpitaldeak eta alderdiak – ondorengo lau urtetan gauzatu behar diren proiektuak).

2.6.2. Bigarren fasea

Lehentasuna duten azpitalde bakoitza osatzen duten adingabe, gazte eta familien lehen zerrenda bat osatuko da, beti ere, hezitzaileen eta programa bere baitan biltzen duen departamentuaren datuak bakarrik kontutan hartuz.

Zerrenda egin ondoren, adingabe, gazte eta familien ezaugarriak ateratzen dira, proposatutako adierazle sistemaren arabera (ezaugarri orokorretarako adierazleak, arazoarekin edo arazoekin lotutako adierazleak eta hipotesiekin lotutako adierazleak).

Era berean, aurreikusitako proiektuak gauzatzekoan bere lankidetzak eman dezaketen baliabideen zerrenda bat egingo da.

Zerrenda bakoitza egin ondoren, adingabeak/gazteak/familiak eta baliabideak, proiektu bakoitzean adierazgarriak izan daitezkeen aldagaiei jarraiki (adingabeentzat edo gazteentzat baliabideetako integrazioa, ia beti, eta adingabeen eta gazteen integrazio maila baliabideentzat, eta beste hainbat) adingabe-gazte-familiak eta baliabideak hautatuko dira elkarriketak egiteko. Adingabeen-familiak eta baliabideen hautaketa egingo da, beti, adingabeen/gazteen edo baliabideen kopuru osoa handia den kasuetan bakarrik.

Baliabideekin egiten diren elkarriketetan adingabe/gazteen zerrenda kontrastatuko da, egoera beretsuan eta hezitzaileek edo departamentuak jaso gabe eduki dezakeen beste adingaberen edo gazteren bat dagoen ikusteko.

Baliabide profesionalekin egiten diren elkarriketetan, horretaz gainera, adingabeen eta gazteei buruzko informazioa kontrastatuko da, ondoren adingabeen eta gazteen eta adingabe edo gazte horiek bizi dituzten arrisku egoerei buruzko ezaugarriak (adierazle sistema) osatzeko, beti ere beharrezkoa balitz.

Hala, bada, elkarriketen eta behaketaren ondorioz, adingabeen, gazteen eta familiak zerrenda handituko da, bai eta berorien ezaugarriak osatu ere adierazle sistemaren arabera (ezaugarri orokorretako adierazleak, eraginari buruzkoak eta arazoarekin loturiko adierazleak).

Beharrezkoa balitz, udalerri bakoitzean arrisku egoeran den haur eta gazteentzako baliabideen gida zabaldu beharko litzateke, elkarriketen bidez lortutako baliabideen deskribapen datuak jasoz.

Ondoren, azterketari buruzko txostena idazteko unean, behaketen eta elkarriketen datuak landuko dira, kategoriak finkatuz, behaketako egunkari edo erregistroetan eta idatzaldutako elkarriketetan oinarrituz.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Jarduerak / Eginkizunak	Agenteak	Noiz
Azterketa proiektuaren lehen diseinu bat egitea, hartzaileen definizioa eta azterketaren xede izango den populazio/beharrak zehaztuz (azterketaren helburua), beti ere, Kontsortzioari programan parte hartzeko aurkeztu zitzaion eskaeran proposatutako programaren xedearen inguruan egindako mugaketaren eta/edo eguneraketaren arabera.	Hezitzaileak. Azterketaren xede izan den populazioaren eta hartzaileen definizioa, programa biltzen den udaleko departamentuko buruarekin kontrastatzen da.	Programan parte hartzeko eskaera egin ondoren.
Elkarriketak izatea azterketaren hartzaileak izango direnekin, beren interesak jasotzeko (azterketaren ikuspuntua kontrastatu, mugaketa, ...).	Departamentuko burua (politikariak, kultura Departamentuko burua,...). Hezitzaileak (bestelako zerbitzu sistemak herri mailan, komunitateko baliabideak, ...).	Hartzaileak zehaztu ondoren.
Azterketaren hartzaileek egindako ekarpenak jasotzea azterketa proiektuaren zirriborroan eta departamentuko taldearekin kontrastatu, aditu bakoitzaren eginkizunak zehaztuz (parte hartzea elkarriketetan, ...).	Hezitzaileak eta departamentuko taldea (aurrerantzean, talde hedatua).	Elkarriketak hartzaileekin izan ondoren.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Jarduerak / Eginkizunak	Agenteak	Noiz
Azterketa proiektuaren diseinua erabakitakoan		Bilera departamentuko taldearekin egin ondoren
Azterketaren helburuak definitzea, ahal den neurrian, hartzaileen beharrak jasoz.	Hezitzaileak	
Aztertu beharreko populazioa eta beharrak/arazoak definitzea (azterketaren xedea).	Hezitzaileak	
Jardueren eta eginkizunen kronograma egitea.	Hezitzaileak	Azterketaren xedea zehaztu ondoren
Agenteak zehaztu (nor arduratzen den eginkizunetaz)	Hezitzaileak	Kronograma egin ondoren.
Behar diren baliabide materialak eta ekonomikoak definitzea.	Hezitzaileak	Kronograma egin ondoren.
Erabiliko diren tresnak diseinatzea (behaketa erregistroak, galdetegiak eta adingabeen-gazte-familiekin eta baliabideekin izango diren elkarriketen gidoiak; ikus "teknikak").	Hezitzaileak	Azterketaren xedea zehaztu ondoren

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Jarduerak / Eginkizunak	Agenteak	Noiz
Tokian tokiko lana (lehen fasea)		
Elkarrizketa gai izango diren adingabeen, gazte eta familien eta baliabideen lehen zerrenda bat egitea.	Talde hedatua (batez ere, programara bildu den departamentuko adituak).	Azterketa proiektua itxi ondoren
Adingabeen, gazteen eta familien ezaugarri orokorrak finkatzea (adinak, zonak, generoa, ...) eta arazoarekin lotutako eta eraginaren adierazleetan oinarrituz –adierazleen sistema bete-.	Talde hedatua (batez ere, programara bildu den departamentuko adituak).	Zerrenda egin ondoren
Inguru irekiko behaketa sistematiko diseinatzea (zonak, egunak, orduak, ...).	Hezitzaileak, programara bildu den departamentuko adituen laguntzarekin.	Azterketa proiektua itxi ondoren
Adingabeak, gazteak eta lagun taldeak inguru irekian behartu, behaketa erregistroa betez.	Hezitzaileak zonaka	Behaketaren diseinua finkatu ondoren
Lehen elkarrizketa txanda bat egitea baliabideekin eta zerbitzu sistemekin, herri mailan.	Hezitzaileak zonaka, zenbaitetan programara bildu den departamentuko adituen laguntzarekin (aurkezpena, laguntzea edo elkarrizketa batzuk egitea).	Adingabeen eta familien ezaugarri orokorrak atera ondoren
Baliabideen gida egitea	Hezitzaileak	Elkarrizketa bakoitzaren ondoren.
Arreta jarri behar den azpitalde eta gainontzeko alderdien gaineko erabakia hartzea –lehentasunak datozen lau urteetarako-.	Talde hedatua	Tokiko lanaren lehen fasea behin itxi ondoren

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Jarduerak / Eginkizunak	Agenteak	Noiz
Tokian tokiko lana (bigarren fasea)		
Elkarriketak egiteko adingabeen, gazteen eta familien, eta baliabideen lehen zerrenda bat egitea, azterketaren bigarren fase honetako xede izango diren hartzaileen azpitaldeen arabera	Talde hedatuarekin	Tokiko lanaren lehen fasea amaitu ondoren
Beharrezkoa balitz, adingabeen, gazteen eta familien intentzio laginketa bat egiten, bai eta baliabideen laginketa bat ere.	Talde hedatuarekin	Zerrenda egin ondoren
Adingabeen, gazteen eta familien ezaugarriak bere orokortasunean ateratzea (adinak, zonak, generoak...) eragin eta arazoarekin lotutako adierazleen arabera –adierazle sistema bete-.	Talde hedatuarekin	Zerrenda egin ondoren
Behaketak egingo diren zonak hautatzea.	Hezitzaileak, talde hedatuarekin	Adingabeen eta familien ezaugarri orokorrak atera ondoren
Adingabeak, gazteak eta lagun taldeak inguru irekian behatzea, behaketa erregistroak betez (egunkariak).	Hezitzaileak zonaka	Zonen hautapena egin ondoren
Elkarriketen bigarren txanda egitea, herri mailako baliabideekin eta zerbitzu sistemekin.	Hezitzaileak zonaka	Baliabideen hautapena egin ondoren

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Jarduerak / Eginkizunak	Agenteak	Noiz
Baliabideen gida eguneratzea bildutako informazioarekin	Hezitzaileak zonaka	Elkarrizketaren ondoren
Adingabeen, gazteen eta familien zerrenda zabaltzea.	Hezitzaileak	Baliabideekin izandako elkarrizketaren ondoren
Elkarrizketak izatea adingabeekin eta gazteekin	Hezitzaileak	Inguru irekiko behaketa aldiaren ondoren edo zerrenda egin ondoren.
Elkarrizketak izatea familiekin	Gizarte langileak zonaka	Familiak hautatu ondoren
Adingabeen, gazteen eta familien ezaugarriak gehitzea (adinak, zonak, generoak, ...) eragin eta arazoarekin lotutako adierazleen eta martxan jarri behar diren proiektuen bidez heldu behar diren alderdiekin (beharrak/arazoak) lotutako bestelako adierazleen arabera –adierazleen sistema bete-.	Hezitzaileak	Elkarrizketa baliabideekin, adingabeekin eta familiekin izan ondoren
Dokumentazio bildu eta aztertzea (legeak, dekretuak, administrazioen planak, antzeko programak, ...)	Hezitzaileak talde hedatuarekin	Hasieratik aurrera
Datuak lantzea: kategoriak finkatu, maiztasunak eta portzentaiak lortu.	Hezitzaileak	Tokiko lanaren ondoren

2.7. Baliabide materialak eta ekonomikoak

Baliabide materialak

- Ordenagailua.
- Estatistika programa (eduki eta egokia iritziez gero).
- Grabagailua.
- Bulego materiala.

Baliabide ekonomikoak

Azterketa egiteko ez da baliabide ekonomiko berezirik behar, beti ere gauzatzeko eginkizunetan murgiltzen diren profesionalen soldatak kontuan hartu gabe. Eztabaida taldeak osatuko balira, egokia izan daiteke parte hartzen dutenei kafea eta/edo mokaduren bat eskaintzea.

2.8. Giza baliabideak

Tokian tokiko lana hezitzaileek egingo dute nagusiki, baina gizarte langileek ere elkarriketa batzuk izan ditzakete familiekin edo baliabide jakin batzuekin, beste udal departamentuekin,... .

Gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze programa bere baitan hartu duen departamentuko buruak parte hartu du azterketaren ildo nagusiak finkatzeko garaian (zirriborra diseinatzean, hartzaileen definizioan, udal programaren helburuaren mugaketan eta, ondorioz, azterketaren mugaketan). Era berean, Departamentuko buruak bere gain har ditzake hainbat baliabide eta beste udal departamentuekin (gazteria, kultura,...) izango diren zenbait elkarriketatari.

Programa bere gain hartu duen departamentuko beste profesional batzuk ere esku hartu dute azterketaren diseinuan eta, parte hartuko dute hala elkarriketak egiteko prozesuan, nola azterketa ixteko unean.

2.9. Azterketaren eremu geografikoa

Azterketaren eremu geografikoa udalerria izango da. Alabaina, lehentasuna eman zaien azpibaldeen egoitza eta "mugimendu" tokien eta kontuan hartutako baliabideen kokaera eta estalduraren arabera, bigarren fasean jasotzen den zona, praktikan, mugatuagoa izan daiteke.

Bestalde, azterketa barrutika edo GLUen (edo kultur zentroen) erreferentzia zonaka egiteko ahaleginak egingo dira, beti ere, kale hezitzaileak zona jakinetara atxikitzen diren neurrian. Hala, hezitzaile bakoitzak bere gain har ditzake, bere zonako adingabe, gazte eta baliabideekin egin beharreko elkarriketak, beti ere, eta beste arrazoiak tarteko, ez bada horrela egitea egoki ikusten.